

Prentsa oharra

Nota de prensa



Berdintasuna, Hezkuntza
eta Gazteria
Igualdad, Educación
y Juventud



DONOSTIAKO UDALAK DIRU-LAGUNTZA BAT ONARTU DU SAHARAKO KANPAMENTUETAN PANDEMIAREN ONDORIOAK ARINTZEKO

Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak 69.500 euroko diru-laguntza zuzena onartuko du bihar saharar errefuxiatuen kanpalekuen beharrei erantzuteko, Covid-19ren pandemia pairatzen ari baitira.

Duñike Agirrezabalaga Kooperazio zinegotziaren esanetan, "Basamortuko erbesteko bizi-baldintza eskasei Covidek eragindako krisia gehitu behar zaie orain, errefuxiatuen kanpamenduak ere zigortzen ari baita. Azpimarratzekoa da, neurri batean, agintari sahararrek hartutako neurriek pandemiaren aurrerapenari eustea lortu dutela, baina neurri guztiak gutxi direla".

Prensa oharra

Nota de prensa



Horregatik, Saharako Lankidetzako Ministerioarekin adostu da diru-laguntza hau ematea, oinarrizko saskiari, osasunari, urari eta herritarren beste behar batzuei laguntzeko, bai eta kanpalekuen arteko garraioari laguntzeko ere.

Aurten ere, osasun krisiaren ondorioz, haur sahararren oporraldi programak bertan behera utzi behar izan dituzte; izan ere, aurreko urteetan bezala, haur horiek ezin izan diete behar medikoei erantzun.

Eta, era berean, ezin dugu alde batera utzi Fronte Polisarioak su-etena hautsi berri duela, pairatzen ari diren egoeraren konponbide politikoaren zain, eta horrek, aldi berean, Saharako biztanleria zibilaren bizi-baldintzak okertuko ditu.